

DANTZA HAURRENTZAT (3-4 urte)

Jarduera

Dantzaren bitartez, ez ahozko komunikazioa, gorputz-espresioa eta harremanak hobetzeko tailerra

Deskribapena

Inprobisazioa eta zentzumen memoria, askatzea eta sormena lantzeko ariketak izango dira ikastaro honen abiapuntua non haurrek munduarekiko hartu-emanak izateko aukera zabalduko duten musika eta dantzaren bitartez.

Helburuak

- Haurren ezagutza eta estima sustatzea gorputz hezkuntzaren bitartez.
- Ikasturte bukaerarako haurrek sortutako koreografia sortzea
- Disziplina lantzea
- Parte-hartze herrikoirako guneak sustatzea.

Programa

1. Hiruhilekoa

- Koreografia desberdinak praktikan jarri ezagutzen dituzten abestien bidez.
- Gorputz adierazpenaren bidezko jolasak psikomotrizitatea lantzeko.
- Erritmoa, gorputza eta espazioa kontrolpean izateko ariketak landu.
- Dantza garaikidearen bidez mugimendu berriak landu.
- Erlaxazioa lantzeko ariketak musika eta arnasketaren bidez.

2. Hiruhilekoa

- Koreografia desberdinak sortu.
- Gorputz adierazpenaren bidezko jolasak psikomotrizitatea lantzen jarraitzeko.
- Dantza garaikidearen bidez mugimendu berriak landu.

3. Hiruhilekoa

- Kurtso bukaerarako koreografiak prestatu.

Irakaslea

- Prokulturrako irakasle taldea.

Nori zuzendua

Haurrak (3-4)

Ikasleak eraman beharreko materiala

Arropa eroso eta ur botila bat.